DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordea
Comisión de Servicios a las Personas

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

## 32. AKTA

## Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordea

**Batzar mota:** Ohikoa

**Eguna:** 2022-05-16

**Ordua:** 11:00

**Tokia:** Udalbatza aretoa

**Batzordeburua:** Duñike Agirrezabalaga Ugarte

**Etorritakoak:**

**Zinegotziak**:

Aitziber San Roman Abete

Jaione Hervas Saez de Arregi *(12:25ean bileratik joan da)*

Martin Ibabe Eceiza

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga

Olaia Duarte López

Miguel Ángel Díez Bustos *(11:38an bileratik joan da eta 12:44an itzuli da)*

Jorge Mota Iglesias

Aitzole Araneta Zinkunegi

**Beste zinegotziak:**

Jon Insausti Maisterrena *(11:25ean bertaratu da)*

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego *(11:45ean bertaratu da eta 12:08an bileratik joan da)*

Haizea Garay Gallastegui *(11:51ean bertaratu da eta 12:21ean bileratik joan da; 12:44an sartu da berriro eta 12:53an bileratik joan da)*

Mª Jesus Idoeta Madariaga *(11:51ean bertaratu da eta 12:08an bileratik joan da)*

Zigor Etxeburua Urbizu *(11:51ean bertaratu da eta 12:25ean bileratik joan da)*

Ane Oyarbide Ochoa *(12:25ean bileratik joan da eta*

## ACTA n.º 32

## Comisión de Servicios a las Personas

**Sesión:** Ordinaria

**Día:** 16-05-2022

**Hora:** 11:00 h

**Lugar:** Salón de Plenos

**Preside:** Duñike Agirrezabalaga Ugarte

**Asistentes:**

**Concejales y concejalas**:

Aitziber San Román Abete

Jaione Hervás Saez de Arregi *(se retira a las 12:25 h)*

Martin Ibabe Eceiza

Jon Markel Ormazabal Gaztañaga

Olaia Duarte López

Miguel Ángel Díez Bustos *(se retira a las 11:38 h y se reincorpora a las 12:44 h)*

Jorge Mota Iglesias

Aitzole Araneta Zinkunegi

**Otros/as concejales/as:**

Jon Insausti Maisterrena *(se incorpora a las 11:25 h)*

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego *(se incorpora a las 11:45 h y se retira a las 12:08 h)*

Haizea Garay Gallastegui *(se incorpora a las 11:51 h y se retira a las 12:21 h; se reincorpora a las 12:44 h y se retira a las 12:53 h)*

Mª Jesus Idoeta Madariaga *(se incorpora a las 11:51 h y se retira a las 12:08 h)*

Zigor Etxeburua Urbizu *(se incorpora a las 11:51 h y se retira a las 12:25 h)*

Ane Oyarbide Ochoa *(se retira a las 12:25 h y se reincorpora a las 12:44 h)*

12447n II

*12:44an itzuli da)*

Nekane Arzallus Iturriza *(12:34an bertaratu da)*

**Beste batzuk:**

11. gaian gonbidatutakoak, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuko emakume langileak.

**Idazkaria:** Iñaki Txintxurreta Perdiguero, idazkari nagusiak eskuordeturik.

BATZORDEBURUAK bilkura hasi dela adierazi ondoren, ondoko GAI-ZERRENDA hau lantzeari ekin dio:

**1.- 2022ko apirilaren 11n izandako bileraren akta irakurri eta onartzea, ontzat joz gero.**

Bozketa egin eta aho batez onartu da 31. akta, 2022ko apirilaren 11n egindako bilerari dagokiona.

**2.- Abegi Etxeko udal araudia hasierako izaeraz onartzea.**

Aitziber San Roman andreak proposamena azaldu du.

Aitzole Araneta andreak, Jorge Mota jaunak, Olaia Duarte andreak, Aitziber San Roman andreak eta batzordeko idazkari jaunak parte hartu dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Aurreko proposamenaren berri eman ondoren, eta zenbait zuzenketa aurkeztu direnez, zuzenketa horiek aztertu, eztabaidatu eta bozkatu egiten dira.

**ELKARREKIN DONOSTIA taldearen 1. zuzenketa** bozkatu eta emaitza hau izan da:

Zuzenketa BAZTERTU da. Boto hauek izan dira:

- Aldeko botoak: 3 – (2) EH BILDU; (1) ELKARREKIN DONOSTIA.
- Aurkako botoak: 5 – (3) EAJ-PNV; (2) PSE-EE.
- Abstentzioak: 1 – PP.

Nekane Arzallus Iturriza *(se incorpora a las 12:34 h)*

**Otros/as:**

Personas invitadas en el asunto n.º 11, mujeres trabajadoras del Servicio de Ayuda a Domicilio.

**Secretario:** Iñaki Txintxurreta Perdiguero, por delegación del Secretario General.

Declarada abierta la sesión por la PRESIDENCIA, se pasa a desarrollar el siguiente ORDEN DEL DÍA:

**1.- Lectura y aprobación, si procede, del acta de la sesión celebrada el día 11 de abril de 2022.**

Se aprueba por unanimidad el acta número 31, correspondiente a la sesión celebrada el día 11 de de abril de 2022.

**2.- Aprobación inicial del Reglamento del Centro Municipal de Acogida Social.**

La Sra. San Román Abete explica la propuesta.

Intervienen en este punto la Sra. Araneta Zinkunegi, el Sr. Mota Iglesias, la Sra. Duarte Lopez, la Sra. San Román Abete y el Secretario de la Comisión, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

Dada cuenta de la precedente propuesta de aprobación, y habiéndose presentado diversas enmiendas, se procede a analizar, debatir y votar las mismas.

Sometida a votación la **enmienda n.º 1 del Grupo ELKARREKIN DONOSTIA,** se obtiene el siguiente resultado:

La enmienda es RECHAZADA con los siguientes votos:

- Votos a favor: 3 – (2) EH BILDU; (1) ELKARREKIN DONOSTIA.
- Votos en contra: 5 – (3) EAJ-PNV; (2) PSE-EE.

- Abstenciones: 1 – PP.

**ELKARREKIN DONOSTIA taldearen 2., 3., 4. eta 5. zuzenketak, EH BILDU taldearekin adostutakoak,** bozkatu eta emaitza hau izan dira:

Sometidas a votación las **enmiendas n.º 2, n.º 3, n.º 4 y n.º 5 del Grupo ELKARREKIN DONOSTIA, transaccionadas con el Grupo EH BILDU,** se obtiene el siguiente resultado:

Zuzenketak aho batez ONARTU dira.

Las enmiendas son APROBADAS por unanimidad.

**PP taldearen 1. zuzenketa** bozkatu eta emaitza hau izan da:

Sometida a votación la **enmienda n.º 1 del Grupo PP,** se obtiene el siguiente resultado:

Zuzenketa aho batez ONARTU da.

La enmienda es APROBADA por unanimidad.

**PP taldearen 2. zuzenketa (zuzendutakoa)** bozkatu eta emaitza hau izan da:

Sometida a votación la **enmienda n.º 2 (corregida) del Grupo PP,** se obtiene el siguiente resultado:

Zuzenketa aho batez ONARTU da.

La enmienda es APROBADA por unanimidad.

**PP taldearen 3. zuzenketa** bozkatu eta emaitza hau izan da:

Sometida a votación la **enmienda n.º 3 del Grupo PP,** se obtiene el siguiente resultado:

Zuzenketa BAZTERTU da. Boto hauek izan dira:

- Aldeko botoak: 1 – PP.
- Aurkako botoak: 7 – (3) EAJ-PNV; (2) EH BILDU, (2) PSE-EE.
- Abstentzioak: 1 – ELKARREKIN DONOSTIA.

La enmienda es RECHAZADA con los siguientes votos:

- Votos a favor: 1 – PP.
- Votos en contra: 7 – (3) EAJ-PNV; (2) EH BILDU, (2) PSE-EE.
- Abstenciones: 1 – ELKARREKIN DONOSTIA.

**PP taldearen 4. zuzenketa** bozkatu eta emaitza hau izan da:

Sometida a votación la **enmienda n.º 4 del Grupo PP,** se obtiene el siguiente resultado:

Zuzenketa aho batez ONARTU da.

La enmienda es APROBADA por unanimidad.

**EH BILDU taldearen 2. zuzenketa** bozkatu eta emaitza hau izan da:

Sometida a votación la **enmienda n.º 2 del Grupo EH BILDU,** se obtiene el siguiente resultado:

Zuzenketa BAZTERTU da. Boto hauek izan dira:

- Aldeko botoak: 3 – (2) EH BILDU; (1) ELKARREKIN DONOSTIA.
- Aurkako botoak: 5 – (3) EAJ-PNV; (2) PSE-EE.
- Abstentzioak: 1 – PP.

La enmienda es RECHAZADA con los siguientes votos:

- Votos a favor: 3 – (2) EH BILDU; (1) ELKARREKIN DONOSTIA.
- Votos en contra: 5 – (3) EAJ-PNV; (2) PSE-EE.
- Abstenciones: 1 – PP.

**EH BILDU taldearen 4. zuzenketa** bozkatu eta emaitza hau izan da:

Sometida a votación la **enmienda n.º 4 del Grupo EH BILDU,** se obtiene el siguiente resultado:

Zuzenketa BAZTERTU da. Boto hauek izan dira:

La enmienda es RECHAZADA con los siguientes votos:

- Aldeko botoak: 3 – (2) EH BILDU; (1) ELKARREKIN DONOSTIA.

- Aurkako botoak: 5 – (3) EAJ-PNV; (2) PSE-EE.

- Abstentzioak: 1 – PP.

**EH BILDU taldearen 5. zuzenketa** bozkatu eta emaitza hau izan da:

Zuzenketa BAZTERTU da. Boto hauek izan dira:

- Aldeko botoak: 3 – (2) EH BILDU; (1) ELKARREKIN DONOSTIA.

- Aurkako botoak: 5 – (3) EAJ-PNV; (2) PSE-EE.

- Abstentzioak: 1 – PP.

**EH BILDU taldearen 1., 3., 6. eta 7. zuzenketak bertan behera** geratu dira, ELKARREKIN DONOSTIA taldearekin adostu baitituzte.

**Zuzenketa teknikoa** bozkatu eta emaitza hau izan da:

Zuzenketa aho batez ONARTU da.

__2. gaia__ bozkatu dute eta aldeko irizpena izan du. Boto hauek izan dira.

- Aldeko botoak: 6 - (3) EAJ-PNV, (2) PSE-EE, (1) PP.
- Aurkako botoak: 0.
- Abstentzioak: 3 - (2) EH BILDU, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.

*(11:25ean Jon Insausti jauna bertaratu da)*

__**3.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Udalak Okendoko Kultur Etxea Presoak Kalera Gros elkarteari lagatzeari buruzkoa.**__

Jorge Mota jaunak interpelazio hau aurkeztu du:

"Borja Corominas Fisas Talde Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Eneko Goia alkateari, Donostiako Udalak Presoak Kalera Gors elkarteari Okendo kultu

- Votos a favor: 3 – (2) EH BILDU; (1) ELKARREKIN DONOSTIA.

- Votos en contra: 5 – (3) EAJ-PNV; (2) PSE-EE.

- Abstenciones: 1 – PP.

Sometida a votación la **enmienda n.º 5 del Grupo EH BILDU,** se obtiene el siguiente resultado:

La enmienda es RECHAZADA con los siguientes votos:

- Votos a favor: 3 – (2) EH BILDU; (1) ELKARREKIN DONOSTIA.

- Votos en contra: 5 – (3) EAJ-PNV; (2) PSE-EE.

- Abstenciones: 1 – PP.

Han quedado **decaídas** las **enmiendas n.ºs 1, 3, 6 y 7 del Grupo EH BILDU**, al haber transaccionado sobre las mismas con el Grupo ELKARREKIN DONOSTIA.

Sometida a votación la **enmienda de corrección técnica,** se obtiene el siguiente resultado:

La enmienda es APROBADA por unanimidad.

Sometido a votación el __**asunto n.º 2**__, es informado favorablemente con los siguientes votos:

- Votos a favor: 6 - (3) EAJ-PNV, (2) PSE-EE, (1) PP.
- Votos en contra: 0.
- Abstenciones: 3 - (2) EH BILDU, (1) ELKARREKIN DONOSTIA.

*(A las 11:25 h se incorpora el Sr. Insausti Maisterrena)*

__**3.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la cesión por parte del Ayuntamiento de la Casa de Cultura de Okendo a la asociación Presoak Kalera Gros.**__

El Sr. Mota Iglesias presenta la siguiente interpelación:

"Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Servicio a las

etxea laga diola eta, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean erantzun dezan.

Personas, sobre la cesión por parte del Ayuntamiento de la Casa de Cultura de Okendo a la asociación Presoak Kalera Gros.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den maiatzaren 2an, Presoak Kalera Gros elkarteak ekitaldi bat egin zuen Okendo kultur etxean, ETAko preso terroristen amnistia eskatzeko. Ekitaldian, ETAko terroristen argazkiak erakutsi zituzten, eta haiek askatzeko eskatu. Gure ikuspuntutik, terrorismoaren apologia egitea da hori, argi eta garbi.

Gure ustez, horrelako ekintzek terrorismoaren biktimak umiliatzen dituzte, eta ETAren erakunde terrorista zuritzen, eta hori ezin da inola ere onartu, are gutxiago udal-instalazio batean.

Hori dela eta, hau da gure

INTERPELAZIOA

1. Zergatik eman zaio baimena Presoak Kalera Gros elkarteari Okendoko kultur etxea erabiltzeko?

2. Gobernu-taldeak ba al zekien zer ekitaldi mota egin behar zuten?

3. Gobernu-taldearen ustez, horrelako ekitaldiak Donostiako udal-instalazioetan egitekoak al dira?

4. Gobernu-taldeak neurririk hartuko al du horrelako ekitaldiak udal-instalazio batean berriz ez egiteko?

Donostia, 2022ko maiatzaren 5a

Borja Corominas Fisas
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea”

Jon Insausti jaunak eta Jorge Mota jaunak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

*(11:38an Miguel Angel Diez jauna bileratik joan da)*

**<u>4.- Interpelazioa, Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztua, ikastetxeetako jolastokiak egokitzea, erabilera dibertsifikatzeko eta futbolaz haraindiko aukerak eskaintzeko.</u>**

Aitzole Araneta andreak interpelazio hau aurkeztu du:

JUSTIFICACIÓN

El pasado 2 de mayo se celebró en Casa de Cultura de Okendo un acto de la asociación Presoak Kalera Gros reclamando la amnistía de los presos terroristas de ETA. Durante el acto se mostraron fotografías de los terroristas de ETA y se exigió su liberación, en un claro ejercicio, desde nuestro punto de vista, de apología del terrorismo.

Consideramos que este tipo de actos constituyen una humillación a las víctimas del terrorismo y un blanqueamiento de la organización terrorista ETA que en ningún caso se puede permitir, mucho menos en una instalación municipal.

Por estos motivo, presentamos la siguiente

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que se ha dado permiso a la asociación Presoak Kalera Gros para hacer uso de la Casa de Cultura de Okendo?

2. ¿Tenía conocimiento el Equipo de Gobierno del tipo de acto que se iba a desarrollar?

3. ¿Considera el equipo de gobierno que este tipo de actos deben celebrarse en las instalaciones municipales de San Sebastián?

4. ¿Va a tomar el equipo de gobierno alguna medida para que este tipo de actos no vuelvan a celebrarse en una instalación municipal?

En San Sebastián, a 5 de mayo de 2022

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular”

Intervienen en este punto el Sr. Insausti Maisterrena y el Sr. Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(A las 11:38 h se retira el Sr. Díez Bustos)*

**<u>4.- Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa a acondicionar los patios de colegios para diversificar su uso y ofrecer opciones más allá del fútbol.</u>**

La Sra. Araneta Zinkunegi presenta la siguiente interpelación:

"Aitzole Araneta Zinkunegi, Elkarrekin Donostia udal taldearen bozeramaileak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluaren babespean, INTERPELAZIO hau aurkezten dio Ane Oyarbide Berdintasuneko zinegotzi ordezkariari, ikastetxeetako jolastokiak egokitzearen, horien erabilera dibertsifikatzearen eta beraz futbolaz haraindiko aukerak eskaintzearen inguruan, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean jorratzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Gero eta ikastetxe gehiago hasi dira jolastokietan sexuen arabera egiten den erabileraren inguruko hausnarketa egiten. Jolastoki gehienak honela egoten dira antolatuta: pista handi nagusi bat izaten dute, eta bertan futbolean —jolas-orduko jarduera nagusia— aritzen dira gehienbat ere mutilak eta gehienetan zaharrenak. Neskek eta gainerako mutilen ustez futbolerako behar bezain onak ez direnek periferietan amaitzen dute, eta bertan ez da altzari edo baliabide askorik egoten. Azken urteotan jolastokiak birmoldatzeko prozesuak hasi dituzten ikastetxeak diagnostiko hori hartzen dute oinarritzat. Jolastokiak birmoldatu dituzte ikastetxeak emaitzak antzematen ari dira.

Helburua ez da pilota-jokoekin amaitzea, jolastokien erabilera dibertsifikatzea baizik, inklusiboagoak izan daitezen eta bestelako jarduerak susta ditzaten. Antzemandako onuren artean hauek daude: futbolean jolastu ohi ez duten haurrek jarduera fisiko gehiago egiteko aukera dute, beste mugikortasun-aukera batzuk ere badituzte; sormen-jarduerak sustatzen dira; bizikidetza hobetzen da eta gatazkak murrizten dira. Gainera, egiaztatu da mutilen eta nesken arteko interakzioa areagotu egiten dela.

Hori dela eta, interpelazio hau aurkezten dugu:

I

NTERPELAZIOA

1. Udal Gobernuak zergatik ez du jarduketarik abian jarri jolastokien egituraketan aldaketak egiten hasteko, hain zuzen ere arestian aipatutako helburu horien esparruan?

2. Etorkizunean ikastetxeetako jolastokiak berritzeari ekiterakoan, Udal Gobernuak ikuspegi hori txertatu nahi al du?

3. Zein plan ditu Udal Gobernuak gai horren inguruan?

Donostia, 2022ko maiatzaren 6a

Sinatua: Aitzole Araneta
Elkarrekin Donostia udal taldeko bozeramailea"

"Aitzole Araneta Zinkunegi, portavoz del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN dirigida a La concejala de Igualdad, Ane Oyarbide, para su tratamiento en la en la Comisión de Servicios a las Personas, relativa a acondicionar los patios de colegios para diversificar su uso y ofrecer opciones más allá del fútbol en Donostia.

JUSTIFICACIÓN

Cada vez son más los colegios que han empezado a pensar sus patios en base a su uso por sexos. La disposición más habitual suele consistir en una gran pista dominada por la actividad estrella de los recreos, el fútbol, practicado en su mayoría por niños y casi siempre los de más edad. Las niñas y aquellos a los que no les gusta o que no dan la talla a ojos del resto suelen acabar en las periferias, donde no suele haber mucho mobiliario ni recursos. Es el diagnóstico del que parten los centros educativos que en los últimos años han iniciado procesos de remodelación de los patios. Aquellos que los han culminado ya están experimentando los efectos.

El objetivo no es acabar con los juegos de pelota, sino diversificar el uso de los patios para que sean más inclusivos y fomenten otro tipo de actividades. Entre otros beneficios, enumeramos el aumento de la actividad física de las niñas y de niños que habitualmente no juegan al fútbol y que pasan a contar con otras opciones de movilidad, el fomento de las actividades creativas o la mejora de la convivencia y reducción de los conflictos. Además, ha comprobado que se da un incremento de la interacción entre niños y niñas.

Teniendo en cuenta este hecho presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué motivos el gobierno Municipal no ha tomado acciones para empezar a acometer cambios en la estructuración de los patios que se enmarquen dentro de estos objetivos?

2. ¿Se plantea el Gobierno Municipal integrar esta visión a la hora de acometer futuras reformas en los patios de los colegios?

3. ¿Cuales son los planes del Gobierno Municipal sobre esta cuestión?

Donostia, a 6 de Mayo de 2022

Fdo.: Aitzole Araneta
Portavoz del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia"

Ane Oyarbide andreak eta Aitzole Araneta andreak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto la Sra. Oyarbide Ochoa y la Sra. Araneta Zinkunegi, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(11:45ean Garbiñe Alkiza andrea bertaratu da)*

*(A las 11:45 h se incorpora la Sra. Alkiza Lopez de Samaniego)*

*(11:51ean Haizea Garay andrea, Mª Jesus Idoeta andrea eta Zigor Etxeburua jauna bertaratu dira)*

*(A las 11:51 h se incorporan la Sra. Garay Gallastegui, la Sra. Idoeta Madariaga y el Sr. Etxeburua Urbizu)*

**5.- Interpelazioa, Elkarrekin Donostia Taldeak aurkeztua, Donostiako emakumeen aurkako jazarpen kanpainei buruz.**

**5.- Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre las campañas de acoso a mujeres en la ciudad.**

Interpelazio hau irakurritzat eman dute:

Se da por leída la siguiente interpelación:

"Haizea Garay Gallastegui Elkarrekin Donostia udal-taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Eneko Goia alkateari, Donostiako abortatzeko kliniketara doazen emakumeen kontrako jazarpen-kanpaina eta -ekintzei buruz eta Donostiako emakumeen sexu- eta ugalketa-eskubideak bermatzeari buruz, PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEAN azter dadin.

"Haizea Garay Gallastegui, concejala del Grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al alcalde Eneko Goia, para su tratamiento en la COMISIÓN DE SERVICIOS A LAS PERSONAS, relativa al desarrollo de campañas y acciones de acoso a mujeres que acuden a clínicas de Donostia en las que se practivan abortos y a garantizar los derechos sexuales y reproductivos de las mujeres de Donostia.

JUSTIFIKAZIOA

Zigor Kodearen 1995eko Legea aldatzen duen apirileko Lege Organikoak, duela gutxi BOEn argitaratu denak, zehatu egiten du abortu-kliniketara joaten diren emakumeen aurkako jazarpena, bai eta klinika horietan lan egiten duten osasun-arloko langileen aurkako jazarpena ere. Zehazki, 3 hilabete eta urtebete arteko espetxe-zigorrarekin edo gizartearen aldeko lanekin zigortzen ditu haurdunaldia eteteko eskubidea oztopatzen dutenak edo haurdunen askatasunari kalte egiten dion ekintza gogaikarri, iraingarri, larderiatsu edo hertsagarrien bidez jazarpen-ekintzak egiten dituztenak.

Bestalde, Gipuzkoako Batzar Nagusiek berriki babestu dute talde ultrakatolikoek, antiabortistek edo antzekoek klinika horietara jotzen duten emakumeen kontra egiten duten jazarpena zehatzea.

Horregatik guztiagatik, eta emakumeen sexu- eta ugalketa-eskubideak bermatze aldera, hau da gure

INTERPELAZIOA

1. Udal-gobernuak zergatik uzten du Donostiako

JUSTIFICACIÓN

La Ley Orgánica de abril que modifica la Ley de 1995 del Código Penal y que ha sido recientemente publicada en el BOE, penaliza el delito el acoso a las mujeres que acuden a clínicas abortivas, así como el acoso a los sanitarios y sanitarias que trabajan en ellas. Concretamente castiga a quién obstaculice el derecho de la interrupción del embarazo, o a quién realice acciones de acoso "mediante actos molestos, ofensivos, intimidatorios o coactivos que menoscaben su libertad", con penas de entre 3 meses y un año de prisión, o trabajos en beneficio de la comunidad.

Por otra parte, Las Juntas Generales de Gipuzkoa han amparado recientemente la penalización del acoso a las mujeres que acuden a estas clínicas por parte de grupos ultracatólicos, antiabortistas, o similares.

Por todo ello, y a fin de que se garanticen los derechos sexuales y reproductivos propios de las mujeres, presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué motivo el gobierno municipal permite

klinika jakin batzuen aurrean emakumeen aurkako jazarpen-kanpaina jarraitu bat egin dadin?

2. Zer baimen dute emakumeen aurkako jazarpen-ekintzak egiten dituzten pertsona talde horiek kliniken aurrean agertzeko edo espazio publikoa okupatzeko? Udalak espazio publikoa okupatzeko lizentziarik ematen al die talde horiei? Erantzuna baiezkoa bada, zer kontzepturekin edo justifikaziorekin?

3. Udal-gobernuak pentsatu al du jazarpena jasaten duten emakume horiek eta klinika horietako langileak babesteko zerbait esatea edo adierazpenak egitea?

4. Zer egingo du udal-gobernuak klinika horietara jotzen duten emakumeen kontra indarkeriarik erabil ez dadin eta emakume horiek biktimizatu ez daitezen?

5. Zer egingo du udal-gobernuak emakumeen eskubideetan, hala nola beren gorputzari buruzko erabakiak hartzeko eskubidean, atzerapenik gerta ez dadin?

Donostia, 2022ko maiatzaren 6a

Sinatua: Haizea Garay Gallastegui
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia”

Ane Oyarbide andreak eta Haizea Garay andreak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

* * *

Bertaratutakoen adostasunarekin, batzordeburuak erabaki du deialdian aurreikusitako gaien ordena aldatzea eta jarraian batera aztertu dituzte 6. eta 13.1. gaiak (Bozeramaileen batzordetik bidalitako lehen ekimena).

* * *

**6.- Interpelazioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Intxaurrondo Zaharreko Kutxabank bulegoa ixteari buruz.**

Irakurritzat eman dute interpelazio hau:

“Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzi Haizea Garay Gallasteguik, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, Intxaurrondo Zaharreko Kutxabank bulegoa ixteari

que se esté desarrollando una campaña continuada de acoso a mujeres frente a determinadas clínicas de Donostia?

2. ¿Qué autorizaciones tienen estos grupos de personas que están realizando acciones de acoso a las mujeres para manifestarse frente a las clínicas y/o para realizar ocupación de espacio público? ¿Está concediendo el ayuntamiento alguna licencia de ocupación de espacio público a estos grupos? En caso afirmativo, ¿bajo qué concepto y/o justificación?

3. ¿Ha considerado el gobierno municipal manifestarse o realizar declaraciones en apoyo a estas mujeres que están siendo acosadas, así como a los y las trabajadoras de estas clínicas?

4. ¿Qué va a hacer el gobierno municipal para evitar la violencia y victimización de las mujeres que acuden a estas clínicas?

5. ¿Qué va a hacer el gobierno municipal para que no se produzcan retrocesos en los derechos de las mujeres como es el de tomar decisiones sobre su propio cuerpo?

Donostia, 6 de mayo de 2022

Fdo.: Haizea Garay Gallastegui
Concejala del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia”

Intervienen en este punto la Sra. Oyarbide Ochoa y la Sra. Garay Gallastegui, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

* * *

Con la conformidad de los y las presentes, la presidenta modifica el orden de tratamiento de los asuntos y, a continuación, se tratan de forma conjunta los asuntos n.º 6 y n.º 13.1 (primera iniciativa remitida por la Junta de Portavoces).

* * *

**6.- Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa al cierre de la sucursal de Kutxabank en Intxaurrondo Viejo.**

Se da por leída la siguiente interpelación:

“Haizea Garay Gallastegui, concejala del grupo municipal Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al

buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Eneko Goia alkateari, PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEAN aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

2018. urtetik 2021. urtearen erdialdera, Kutxabankek jendaurreko arretarako 60 sukurtsal edo bulego itxi ditu Euskadin, eta, aldi berean, bezeroei kobratzen dizkien komisioak % 9 inguru handitu ditu; zehazki, 2021eko lehen hiruhilekoan soilik 31 bulego itxi zituen Euskadin. Donostian ere hainbat bulego itxi ditu: Herrerakoa 2017 hasieran; Bidebietako sukurtsala 2020 amaieran itxi zuen; horren ondorioz, harrez geroztik, bizilagunek Trintxerpe amaieraraino joan behar dute —ia Pasai San Pedrora—, Azkuene kaleko sukurtsala ere lehenago itxita baitzuen Kutxabankek.

Bidebietaren kasuan, bizilagunak mobilizatu ziren, eta sinadurak biltzeko kanpaina bat egin zuten. Udalari ere laguntza eskatu zioten; hau da, bulegoa ez ixteko inplika zedila. Geroago, 2020ko abenduan, Udalbatzak mozio arrunt bat onartu zuen, Kutxabank banketxeari Bidebietako bulegoa irekita mantentzeko eskatuz, ordura arte zituen ordutegi eta zerbitzuekin, eta, hori ezinezkoa balitz, bulegoa aurrez aurre gutxienez astean egun batzuetan irekita egoteko eskatuz. Finantza-erakundeak, aldiz, inguruan bulegoak ixten jarraitu zuen, eta 2021eko otsailean Pasai San Pedroko bulegoa itxi zuen.

Martxoaren hasieran Kutxabank banku-entitateak jakinarazi zuen ez zuela bulego gehiago itxiko Euskadin —ziur aski, hainbat kolektibok komunikabideetan eskatu baitzuten aurrez aurreko arreta mantentzea banku-izapideak egiteko— baina ez da hilabete igaro eta beste sukurtsal bat itxiko duela iragarri du, oraingoan Intxaurrondo Zaharrekoa. Kasu honetan, erakundeak Groseko bulegoetara joateko gonbita egiten die Intxaurrondoko bezeroei. Horrek esan nahi du distantzia handi samarra egin behar dutela, garraio pribatu edo publikoan, eta egoera hori bereziki kaltegarria da adineko pertsonen edota mugitzeko zailtasunak dituzten pertsonen kasuan. Era berean, kontuan hartu behar dugu adineko pertsona asko bizi direla Intxaurrondon.

Bulegoak ixteko joeraz gain, kontuan hartu behar da azken urte hauetan banku-eragiketak kutxazain automatikoen bidez edo modu telematikoan egitea eskatzen duela, eta jatorrian

alcalde Eneko Goia, para su tratamiento en la COMISIÓN DE SERVICIOS A LAS PERSONAS, relativa al cierre de la sucursal de Kutxabank en Intxaurrondo Viejo.

JUSTIFICACIÓN

Desde el año 2018 a mediados del año 2021 Kutxabank ha cerrado 60 sucursales u oficinas de atención personal en Euskadi, a la vez que han incrementado las comisiones que cobra a sus clientes alrededor de un 9%; concretamente, sólo en el primer trimestre del 2021 cerró 31 oficinas de Euskadi. En nuestra ciudad tenemos el caso de Herrera a principios del 2017; el cierre de la sucursal de Bidebieta que se produjo a finales del 2020, obliga a sus vecinos y vecinas a desplazarse hasta el final de Trintxerpe limitando con Pasai San Pedro, pues la sucursal existente en la calle Azkuene también había sido cerrada con anterioridad.

En el caso de Bidebieta vecinos y vecinas se movilizaron, realizando una campaña de recogida de firmas que entregaron a Kutxabank, y también solicitaron al ayuntamiento su implicación para evitar el cierre. Posteriormente, en diciembre del 2020 el Pleno aprobó una moción ordinaria en la que se solicitaba a la entidad bancaria Kutxabank que mantuviera abierta la oficina de Bidebieta, con los horarios y servicios diarios que mantenía hasta el momento, y en el caso de que esto no fuese posible, que la oficina estuviese abierta de forma presencial al menos unos días a la semana. La entidad financiera al contrario, siguió continuando con su cierre de oficinas en el entorno, pues en febrero del 2021 cerró las puertas de la de Pasai San Pedro.

Y mientras que a principios de marzo la entidad bancaria Kutxabank informó que no procedería a cerrar más oficinas en Euskadi, -seguramente coincidiendo con la presencia en medios de comunicación de distintos colectivos reclamando, precisamente, atención presencial para realizar los trámites bancarios-, nos encontramos que no ha pasado un mes y anuncia un nuevo cierre, el de la sucursal de Intxaurrondo Viejo. En este caso la entidad invita a sus clientes de Intxaurrondo a acudir a las oficinas en Gros, lo que implica que tienen que desplazarse una distancia relativamente considerable, que implica un traslado en transporte privado o público, pero especialmente perjudicial para las personas de edad avanzada y con dificultades de movilidad, población ésta de edad avanzada muy significativa en el barrio de Intxaurrondo.

Todos estos cierres más la tendencia desde hace años a derivar la gestión de los trámites a los y las mismas clientes, a los que se les indica realizar las operaciones a través de los cajeros

helburu soziala eta kapital publikoa zuten udal eta probintzia aurrezki-kutxez osatutako erakunde bat dela kontuan izanda, horrek agerian uzten du erakundeak ez duela inolako enpatiarik.

Donostiako Udala, erakunde horren fundatzailea delako, Kutxako Fundazioaren berezko patroia denez, eta fundazio hori Kutxabank, SAren kapital sozialaren % 32ren jabea denez, erakundea garatzen ari den banku-praktiken arduraduna ere bada: jardun horiek fundazio gisa sortu zenean zehaztutako helburu eta xedeen aurkakoak dira eta bizitza osoko bezeroei bizkarra ematen diete.

Aipatutako guztiagatik, honako hau aurkezten dugu:

INTERPELAZIOA

1. Udal Gobernuak zergatik ez dio aurka egin Donostian jendaurreko arretarako beste bulego bat ixteari, sukurtsal horiek ixteak Donostiako beste auzo batzuetan eragin duten kaltea zein heinerainokoa izan den jakinda?

2. Udal Gobernuak zergatik ez du jakinarazi zer erantzun eman zuen Kutxabankek 2020ko abenduan Bidebietako sukurtsala behin betiko ez ixteari buruz onartutako mozioaren aurrean? Udal Gobernuak aipatutako sukurtsalean zerbitzua mantentzea eskatu al du?

3. Udal Gobernuak Kutxari edo Kutxabanki eskatu al dio bulegoak ixteko aurreikusitako plana? Hala ez bada, hiriko eremu jakin batzuetan sukurtsalak zergatik ixten ari den jakiteko informazioa eskatu al du?

4. Ba al dakizue Donostiako beste auzo batzuetan sukurtsal gehiago itxiko al diren?

5. Zer neurri hartuko ditu Udal Gobernuak Kutxabanken itxiera-erabaki horiek donostiarrengan eraginik izan ez dezaten?

6. Zer neurri hartu ditu Udal Gobernuak pertsona guztiek, edozein auzotan bizi direla ere, Kutxabankek banku-zerbitzuak aurrez aurre —hau da, ez Internet bidez, ez kutxazain automatikoen bidez ere— erabili ahal izatea bermatzeko?

7. Udal Gobernuak uste al du ez duela ahalmenik Kutxa Fundazioaren Patronatuan esku hartzeko, hain zuzen ere Kutxabanki eskatzeko komisioak ez areagotzeko eta bezeroei ematen dizkien zerbitzuen kalitatea ez murrizteko?

automáticos o de forma telemática, refleja la falta de empatía de una entidad compuesta por cajas de ahorros municipales y provinciales que en su origen tenían un fin social y contaban con capital público.

Dado que el ayuntamiento de Donostia es patrono nato de la Fundación de Kutxa por ser fundador de la citada entidad, y que esta fundación es propietaria de un 32% del capital social de Kutxabank, S.A., es por tanto responsable también de las prácticas bancarias que se están desarrollando por la entidad, contrarias a los fines y objetivos que tuvieron en el momento de su creación pero también de espaldas a sus clientes de toda la vida.

Por todo ello presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué motivo el gobierno municipal no se ha opuesto a un nuevo cierre de una oficina de atención presencial en la ciudad, conociendo el perjuicio que estos cierres ya han producido en otros barrios de Donostia?

2. ¿Por qué el gobierno municipal no ha informado de la respuesta de Kutxabank a la moción aprobada en diciembre del 2020 sobre el no cierre definitivo de la sucursal de Bidebieta? ¿Ha solicitado a Kutxabank el mantenimiento del servicio en la citada sucursal?

3. ¿Ha solicitado el gobierno municipal información a Kutxa o a Kutxabank sobre el plan de cierres previsto? En caso contrario, ¿ha solicitado información acerca de por qué se están llevando a cabo cierres de sucursales en unas zonas determinadas de la ciudad?

4. ¿Tienen conocimiento de más cierres de sucursales previstos en otros barrios de la ciudad?

5. ¿Qué medidas piensa adoptar el gobierno para que estas decisiones de cierres de Kutxabank no afecten a los y las donostiarras?

6. ¿Qué medidas piensa adoptar el gobierno para garantizar que todas las personas, independientemente del barrio en donde vivan, puedan acceder a los servicios bancarios de Kutxabank de forma presencial, no a través de Internet ni de cajeros automáticos?

7. ¿Considera el gobierno municipal que no tiene capacidad para interceder en el Patronato de la Fundación Kutxa a fin de solicitar a su vez a Kutxabank acabar con las prácticas de incrementar comisiones a la vez que reduce la calidad de los servicios que da a los y las

clientes?

Donostia, 2022ko maiatzaren 6an

Sinatua: Haizea Garay Gallastegui
Elkarrekin Donostia udal taldeko zinegotzia"

Donostia, 6 de mayo de 2022

Fdo.: Haizea Garay Gallastegui
Concejala del Grupo Municipal Elkarrekin Donostia"

**13.1.- Interpelazioa, EH BILDU taldeak aurkeztua, Kutxabanken jardunbideen aurrean duen zereginari buruzkoa dela eta.**

Irakurritzat eman dute interpelazio hau:

"Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniegok, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 97. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, OSOKO BILKURAN PRESAZ AZTERTZEKO INTERPELAZIO ZUZEN hau aurkezten dio Eneko Goia Laso alkate jaunari, Udal Gobernuak Kutxabanken jardunbideen aurrean duen zeregina dela eta.

JUSTIFIKAZIOA

Intxaurrondo Zaharra izan da banketxerik gabe geratu den azken auzoa.

Azken urteetan, bankuek etengabe desagertu dituzte arreta pertsonaleko bulegoak, bai Donostian bai beste udalerri batzuetan. Egoera hori izan zuen Donostiako lehen auzoetako bat Herrera izan zen, 2017an bertako bulegoa itxi zutenean.

Duela gutxi, Bidebieta geratu zen bankurik gabe, eta hango biztanleek Trintxerpera edo urrunago joan behar dute orain zerbitzu bila. Donostiako Udalak, auzotarrek sinadurak bildu ondoren, Kutxabanki eskatu zion bulegoa ez ixteko, baina ez zuen erantzun positiborik izan.

Intxaurrondo Zaharrean, Caixaren eta Euskadiko Kutxaren bulegoak itxi ondoren, Kutxabankek bezeroentzako arreta-egoitza itxiko du apirilaren 13an. Bulegoan jarritako ohar informatiboak erakundeko bezeroak Gros auzoko Kale Nagusiko bulegora gonbidatu ditu.

Kontuan izan behar da biztanleen zati handi batek, adin jakin batetik aurrera bereziki, ez duela gaitasunik Internet bidez zerbitzua erabiltzeko eta nahikoa arazo duela kutxazain automatikoa erabiltzeko. Beraz, horrelako murrizketek arazoak eta mugak baino ez dituzte sortzen herritar hauentzat. Hemendik aurrera, Intxaurrondon, batez ere adineko askorentzat, nahitaezkoa izango da autobusa hartzea, beste pertsona baten mende egon nahi ez badute, Kutxaren zerbitzuak

**13.1.- Interpelación, presentada por el Grupo EH BILDU, relativo al papel del Gobierno Municipal ante las actuaciones de Kutxabank.**

Se da por leída la siguiente interpelación:

"Garbiñe Alkiza López de Samaniego, concejala del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 97 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta al alcalde Eneko Goia Laso la siguiente INTERPELACIÓN DIRECTA respecto al papel del Gobierno Municipal ante las actuaciones de Kutxabank, para su tratamiento urgente en el pleno.

JUSTIFICACIÓN

Intxaurrondo Viejo ha sido el último barrio que se ha quedado sin sucursal bancaria.

En los últimos años los bancos han ido cerrando las oficinas de atención personal, tanto en Donostia como en otros municipios. Uno de los primeros barrios donostiarras en esta situación fue Herrera, con el cierre de su oficina en 2017.

Recientemente Bidebieta se quedó sin sucursal bancaria y sus vecinas y vecinos deben desplazarse a Trintxerpe o más lejos en busca de este servicio. Tras una recogida de firmas por parte de vecinas y vecinos del barrio, el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián solicitó a Kutxabank que no cerrara la oficina, pero no tuvo una respuesta positiva.

En Intxaurrondo Viejo, tras el cierre de las oficinas de Caixa y Caja Laboral, Kutxabank cerrará su sede de atención al cliente el 1próximo 13 de abril. Las notas informativas colocadas en la oficina invitan a la clientela de la entidad bancaria a que acuda a la oficina de Gran Vía del barrio de Gros.

Se debe tener en cuenta que una parte importante de la población, especialmente a partir de cierta edad, no tiene capacidad para utilizar el servicio a través de Internet y presenta también problemas a la hora de utilizar el cajero automático. Por tanto, este tipo de restricciones sólo generan problemas y limitaciones para este sector de la población. A partir de ahora, en Intxaurrondo, sobre todo para muchas personas mayores, si no quieren depender de otra persona, será obligatorio coger

jaso ahal izateko.

el autobús para poder acceder a los servicios de Kutxabank.

Argi dago aurrezki-kutxa publikoak izandakoen pribatizazioak ondorio kaltegarriak ekarri dituela. Izan ere, besteak beste, urtero handitu dituzte komisioak, Europako herrialde gehienek baino ehuneko handiagoan, eta maileguak garestiagoak dira. Baina, aldiz, zerbitzu publikoa gutxitu egin dute.

Es evidente que la privatización de las cajas de ahorros públicas ha tenido consecuencias negativas. Y es que, entre otras cosas, cada año han aumentado las comisiones en mayor porcentaje que la mayoría de los países europeos y los préstamos son más caros. Pero, en cambio, han reducido el servicio de cara al público.

Kontuan hartuta Donostiako Udala Kutxa Banku Fundazioaren berezko patronoa dela, erakunde horren sortzailea izateagatik, uste dugu badituela beharrezko mekanismoak Kutxabanki banku-jardunbide txar horiek bertan behera uzteko hertsatuki eskatzeko.

Teniendo en cuenta que el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián es patrono propio de la Fundación Bancaria Kutxa, como fundador de ésta, entendemos que dispone de los mecanismos necesarios para instar a Kutxabank a que cese en estas malas prácticas bancarias.

Auzo berri batean itxi behar dute bulegoa eta Donostiako Udalak egoera honek aurrera ez jarraitzeko dituen baliabideak martxan jartzea eskatu nahi dugu, hala nola, bulego gehiago ixtea eragotzi dezan. Izan ere, sukurtsalak ixtearen ondorioz, pertsona askok ez dute beren dirua leku seguru batean gordetzeko aukerarik, ez eta zerbitzu duin bat jasotzeko aukerarik.

Ante el cierre de una sucursal bancaria en otro barrio, solicitamos que el Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián ponga en marcha los recursos que dispone para que esta situación no se agrave aún más, y evite el cierre de más sucursales bancarias. Ya que, el cierre de sucursales no permite a muchas personas a guardar su dinero en un lugar seguro ni a poder optar a un servicio digno.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

Es por ello por lo que la concejala abajo firmante presenta la siguiente

INTERPELAZIOA

- Zer dela-eta ez dio Udal Gobernuak, Kutxa Banku Fundazioaren Patronatuan duen ordezkariaren bidez, Kutxabanki eskatu egiten dituen jardunbide txarrak bertan behera uzteko, auzoetako bulegoak ez ixteko eta zerbitzu presentzial egokia bermatzeko?

- Zer dela-eta ez dio Udal Gobernuak Kutxabanki eskatu Intxaurrondo Zaharreko sukurtsal horretan zerbitzua mantentzeko?

- Zer egingo du Udal Gobernuak hemendik aurrera auzoetako sukurtsalak mantentzeko eta Kutxabankek bulego gehiago ez ixteko?

Donostia, 2022ko apirilaren 22an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia”

INTERPELACIÓN

-¿Cuál es el motivo por la que el Gobierno Municipal, a través de su representante en el Patronato de la Fundación Bancaria Kutxa, no ha solicitado a Kutxabank el cese de estas malas prácticas, del cierre de oficinas bancarias en los barrios y la garantía de un servicio presencial adecuado?

-¿Por qué motivo no ha solicitado el Gobierno Municipal a Kutxabank el mantenimiento del servicio en la sucursal de Intxaurrondo Viejo?

-¿Qué va a hacer el Gobierno Municipal a partir de ahora para mantener las sucursales en los barrios y que Kutxabank no cierre más oficinas?

En San Sebastián, a 22 de abril de 2022

Garbiñe Alkiza López de Samaniego,
concejala del grupo municipal EH BILDU”

M.ª Jesus Idoeta andreak, Haizea Garay andreak eta Garbiñe Alkiza andreak hitz egin dute puntu hauetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en estos puntos la Sra. Idoeta Madariaga, la Sra. Garay Gallastegui y la Sra. Alkiza Lopez de Samaniego, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(12:08an Garbiñe Alkiza andrea eta Mª Jesus Idoeta andrea bileratik joan dira)*

**7.- Interpelazioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, memoria guneak seinaleztatzea dela eta.**

Haizea Garay andreak interpelazio hau aurkeztu du:

"Elkarrekin Donostia udal talde politikoko zinegotzi Haizea Garay Gallasteguik, indarrean dagoen Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluaren babesean, memoria-guneak seinaleztatzeari buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Oroimen Historikoko zinegotzi ordezkari Ane Oyarbideri, PERTSONENTZAKO ZERBITZUEN BATZORDEAN aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Memoria Historiko eta Demokratikoari buruzko lege-proiektuak, gaur egun Legebiltzarrean izapidetzen ari denak, aukera emango die toki-erakundeei aztarna frankistak ezabatzeko, memoria-guneak identifikatzeko, tokian-tokian seinaleztatzeko eta horiek proiektu pedagogikoen bidez ezagutarazteko.

Urte asko igaro dira altxamendu frankistaz geroztik: zehazki, 85 urte igaro dira militar frankistak Donostian sartu zirenetik; urte asko ere igaro dira diktadorea hil zenetik, eta igarotako denborak esaten digu orain arte emandakoak baino askoz ere urrats gehiago behar direla gure memoria demokratikoa berreskuratzeko. Denbora aurrera doan heinean, biktimei ordaina emateko denbora hori galtzen ari gara; eta jasandako bidegabekeriaren aurrean, gerra zibila eta askotan ezta frankismoaren azken urteak zuzenean ezagutu ez zituzten belaunaldien memorian mina enkistatzen da.

